

Gure proiektua BASERRITU deitzen da, eskola kanpoko ekintza bat da nun baserriko zereginak egiteko ekintzaten oinarritzen den eta horrela haurrak txikitatik baserriko bizitzarekin ohitu daitezke. Baserri baten egingo da proiektua, Baserri hau Elorrion kokatuta dago, bereiziki Gaztañeta auzoan. Baserriak 852m² ditu eta 7 hektarea dituen lursailak ditu. Ikastolatik 10 minutura dago. Hilabetearen arabera baserria modu ezberdinetan apaintzen joango gara; gabonetan adibidez, zuhaitzekin, zintekin, bolekin, elurrezko panpinekin... apainduko dugu. Kontuan hartuta proiektua haurrentzako dela, ordutegia astelehenetik ostiralera 5etatik 7:30 arte eta asteburuetan goizeko 12tik 15arte eta arratsaldean 5 etatik 7:30 arte izango da.

Hona hemen hainbat ezaugarri:

→ Baserria da eta haurren arriskuetatik alde dago. Haurrentzat txoko bat dago eta bertan hezitzaileak egongo dira haurren bide lagunak izateko. Horren ondorioz, gurasoen lana erraztuko dugu.

→ Haurrekin egoteko hezitzaileak egongo dira.

→ Haurrek ekintzak egiten dauden bitartean gurasoek tabernan egon ahal dira lagunekin, zerbait hartzen edo erosketak egiten...

Gure proiektua balio hauetan oinarritzen da:

TEKNOLOGIATIK KANPO	Gure baserria teknologiatik kanpo egongo da. Haurrek ez dute teknologiarekin kontakturik izango. Haurrek entretenitzeko eta ikasteko modu berriak aztertuko ditugu, eta horrek irudimena eta sormena pizten ditu.
NATURAREN ZAINZA / NATURAZ IKASI	Egingo ditugun hainbat ekintzekin ingurumenarekiko zaintza bultzatuko dugu. Adib: Birziklatu, konposta, erreka/ ingurunea garbitu...
ARBASOETATIK IKASI	Arbasoak nola bizi ziren erakustea da gure helburu nagusia. Baserriko bizitza nolakoa zen, arbasoek egiten zituzten ekintza desberdinak.
EUSKARAREN BULTZAKERA	Haurrekin gaudenean eta ekintzetan gaudenean. Ekintzekin euskararen erabilkortasuna bermatzea lortu nahi dugu.